



# Texto

**Title:** Izarapean

**Composer:** Xabier Sarasola

**Ref:** CM.2.0046

## Izarapean

Izar azpian mundua dago  
Izarapean zerua  
Zure laztanen haize hegoan  
Galtzen da nire burua  
Errekastoak ur murmurio  
Itsaso handiak orru  
Zentzun guztien zoramenera  
Muxuz-muxu, larruz-larru.  
Kimuarena ote lorea  
Ta fruitua lorearen?  
Elkar urtuaz jakin nahi dugu  
Ni zu naizen zu ni zaren  
Su gar harroa iraungitzean  
Ilintiak gorri dirau  
Ase ondoko lotan gautzala  
Ailedi betirako gau.